

Nafarroako barietate batzutako perpaus denborazkoez

IÑAKI GAMINDE

Artikuluska honetan aurkezten ditudan denborazko esaldiak 1989. urteko udaldian Nafarroako hainbat herritan zehar egindako txangoetan jasotako materialetatik aterata daude.

Material ugaria jaso nuenez gero hemen plazaratzeari interesgarri eritzi diot eta nondik edo handik hasi behar denez gero denborazko esaldiak aukeratu ditut.

Lantxo honen helburua jasotako aldakiak eta berauen esaldi ereduak ematea baino ez da; bide batez, non jaso diren adierazten da eta amaieran, emango ditudan mapetan, kartografia entseiu bat egin nahi izan dut. Agerzen diren aldakiak eta esaldi ereduak ikusirik uste dut ezen geroagoko azterketetarako arazo batzu geratzen direla ikergai; esate baterako, -NEAN / -ELARIK horien hedadura geografikoa eta biak batera agertzen diren herrietan erabileraren zehaztapena.

Aurkezten ditudan materialak Bonaparte erregegaiaren sailkapenaren arabera jarraian adierazten diren herriotan jasota daude (Ikus bedi 1. mapa):

GIPUZKERA

Burundako barietatea:

- 1-Urdiain
- 2-Lizarraga

Etxarri-Aranazko barietatea:

- 3-Etxarri-Aranaz

IPAR GOI NAFARRERA

Intzako barietatea:

- 4-Leitza
- 5-Huizi

Uharte-Arakilgo barietatea:

- 6-Uharte
- 7-Arbizu
- 8-Lakuntza
- 9-Arruitz
- 10-Oderitz

Berako barietatea:

- 11-Bera
- 12-Lesaka
- 13-Arantza
- 14-Etxalar
- 15-Ezkurra
- 16-Labaien
- 17-Saldias
- 18-Ituren
- 19-Sunbilla
- 20-Legasa

Lizasoko barietatea:

- 21-Arraras
- 22-Beruete
- 23-Garzaron
- 24-Etxaleku
- 25-Muskiz
- 26-Auza
- 27-Arizu

Elizondoko barietatea:

- 28-Errazu
- 29-Arraioz

A. NOIZ

Noiz galderari erantzukeran badakigu esaldi nagusiaren eta menpekoren arteko ekintzak era desberdinetara bete daitezkeena, hau da:

- A.1.-Aldi berean
- A.2.-Bata bestea baino lehen
- A.3.-Bata bestearen ostean

A.1. Ekintzak aldi berean betetzen direla adierazten dutenak:

Berauen artean, gainerakoetan bezala, jokatuak eta ez jokatuak bereiztuko ditugu.

JOKATUAK

A.1.1. -NEAN / -ELARIK

Ataltxo honetan eta geroaldiari dagokion aspektu moeta ikusi ahal izate-

ko, lehen aldia eta geroaldia bereiztu egingo ditugu menpeko esaldiari dagokionez.

GERO ALDIA (Ikus bedi 2. mapa)

Hona hemen agertzen diren aldakiak.:

1. -TEN -NEAN
2. -TEN -ELARIK

1. -TEN -NEAN

Burundako barietatea:

- despeitzen dezunien fanko ga gue etxea (Urdiain)
- yoosten dokenien eakutsikook (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- akaatzen dezunien fanko gaa etxea (Etxarri)
- yoosten dezunien eakutsi in bie niezu (Etxarri)

Intzako barietatea:

- bukatze unen etxea yoanen gaa (Leitza)
- eosten ozonen eakutsiko diezo (Leitza)
- akaatzen duunin joango gaa etxea (Huizi)
- etortzen denin beti ekartzen do zerbaitt (Huizi)

Uharteko barietatea:

- oosten duzunien aakusko uzu nei (Arbizu)
- akabatzen duunien faen gaa itxaa (Arbizu)
- akabatzen duzunien etorriko a (Arbizu)
- despeitzen duunien joaen gaa itxea (Lakuntza)
- erosten dukenien eakusko ik (Lakuntza)
- akaatzen duniin itxea joain gaa (Oderitz)
- iyosten dizuniin iyakutsiko deezo (Oderitz)
- akatzen duzunin joaen gaa etxea (Arruitz)
- erosten duzunin erakutsiko deezo (Arruitz)
- atte etortzen denin gu lanin izaten gaa (Arruitz)

Berako barietatea:

- akautzen duzunian yoanen gara itxera (Lesaka)
- erosten duzunian erakutsiko dirazu (Lesaka)
- atta etortzen danian gu lanian gara (Lesaka)
- akautzen duzunian itxera yoanen gara (Etxalar)
- erosten duzunian erakutsiko diazu (Etxalar)
- aita etortzen denian gu lanian gara (Etxalar)
- akitzen dugunin yoain gara itxera (Sunbila)

- etortzen denin egoin naiz berarekin (Sunbila)
- etortzen danian egonen naiz berakin (Bera)
- akitzen zunin yoain gara itxera (Ituren)
- erosten duzunin erautsiko dirazu (Ituren)
- aitta etortzen denin gu lanian ari gara (Ituren)
- akitzen dozonon yoain gara itxera (Labaien)
- erosten dozonon erakutsiko derezo (Labaien)
- zakurrek zaingutzen do soiñu aitzen dunen (Labaien)
- bukatzen denen yoain ga itxera (Ezkurra)
- eosten dozunen eakutsiko deezo (Ezkurra)

Lizasoko barietatea:

- etortzen deenin esanen zionet (Arraras)
- akabatzen duunin yoanen gaittuk itxea (Arraras)
- biar etortzen zanian akatzen yonen naiz (Etxaleku)
- etortzen danian yoin naiz berarrekin (Etxaleku)
- akatzen duzunian joain ga itxa (Etxaleku)
- yosten duzunian yakusko dezo (Etxaleku)
- zuk akabatzen duztenin yoain gaa itxera (Beruete)
- txakurrek zaunka itten du zerbiattetaz goartzen denin (Beruete)
- akaatzen duzunin itxea yoain gara (Beruete)
- erosten duzunin erakutsiko duzo (Beruete)
- akabatzen dugunian yoain gara itxera (Muskiz)
- lana itten dugunian yain dugu (Muskiz)
- akabatzen duunian etorko da (Muskiz)

2. -TEN -ELARIK

Berako barietatea:

- akautzen duzulik yoanen gara itxera (Bera)
- erosten duzulikan erakutsiko nauzu (Bera)
- atta etortzen delikan gu lanian gaude (Bera)

Baztango barietatea:

- erosten dizuleik erakutsiko naizu (Errazu)
- aite tortzen delaik gu lanean ari gara (Errazu)
- akabatzen duguleik gain gara itxera (Arraioz
erosten duzuleik erakutsiko datazu (Arraioz)
- aite tortzen delaik gu lanean gaude (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- beti tortzen dalaik ekartzen du zerbait ere (Garzaron)
- akaatzen duzulaik itxera yoain gara (Garzaron)
- erosten duzulaik erakutsiko dizut (Garzaron)
- bazkaltzen dulaik yoain gara itxera (Garzaron)

- akabatzen duzuleik yoain gara itxera (Auza)
- erosten duzuleik erakutsiko direzu (Auza)
- akabatze uzulaik yoain gara itxera (Arizu))
- eroste uzulaik erakutsiko direzu (Arizu)

LEHEN ALDIA (Ikus bedi 3. mapa)

1. -O -NEAN
2. -O -ELARIK

1. -O -NEAN

Burundako barietatea:

- euriya eman deanien kalien genden (Urdiain)
- eldu zindanien ikus dezut (Urdiain)
- auriye asi dauenien kanpuen giñaurien (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- auriye asi anien kanpuen geunden (Etxarri)

Intzako barietatea:

- eurie asi duenen atarin giñauden (Leitza)
- etxea yoan naizenen atea itxie zegon (Leitza)
- etxea joan nitzenin atea itxie zegon (Huizi)

Uharteko barietatea:

- ibili giñenien basuen aparezittu zen (Arbizu)
- asi anien auriya kallien gounden (Arbizu)
- alleatu gaenien goatzea fan gaa (Arbizu)
- auriye asi denien karriken giñaurien (Lakuntza)
- iyuria asi deniin kanpoan giñauden (Oderitz)
- etorri daniin jaten ai giñen (Oderitz)
- gaur goizin etorri naizenin atarii iitxiik zoeen (Arruitz)
- etxea joan naizenin atarii iitxiik zoeen (Arruitz)
- euri asi dunin kanpoan giñen (Arruitz)

Berako barietatea:

- euriya asi dunian gu kanpuan giñen (Lesaka)
- uriya asi duenian kanpuan giñen (Etxalar)
- itxera yoan naizenian atia ertsiya zagon (Etxalar))
- uria asi dunin gaunden atarin (Ituren)
- yoan naizenin atia zagon itxia (Ituren)
- eldu ziñenin ikusi zaitut (Ituren)
- mendin gabiltzenin agertu zen (Legasa)
- uriya asi dunin karrikan giñen (Legasa)

- itxera yoan naizenin atia itxia zagon (Legasa)
- itxera yaon garenin atia itxia zegoen (Saldias)
- eurie asi dunin giñauden kanpuan (Saldias)
- euri asi duenen atariin giñen (Ezkurra)
- etxea yoan naizenen atea itxiik zegoan (Ezkurra)

Lizasoko barietatea:

- etorri yaizenin ikusi yaut (Arraras)
- itxetik atera denin txakurrek ozka in dio (Beruete)
- gaizkitu zenin il tzan (Beruete)
- egurii asi duenin kanpoan giñauden (Beruete)
- biztu duzunin erre zaizo (Beruete)
- etorri denian bazkaltzen nioken (Etxaleku)
- yeurie asi duenian kanpoan giñauden (Etxaleku)
- eldu nitzenian ikus dizut (Etxaleku)
- oyanean giñabiltzenian ori etorri zen (Muskiz)
- eurie asi duenian an giñauden (Muskiz)
- torri zarenian kusi dizut (Muskiz)
- itxetik atra denian zakurrek ozka in dio (Muskiz)
- eurie asi duenean kanpoan giñauden (Auza)

2. -O -ELARIK

Berako barietatea:

- uriya asi duelikan gu karrikan giñen (Bera)
- itxera yoan garelikan atia itxita zagon (Bera)

Elizondoko barietatea:

- urie asi duelaik kanpoan ginen (Errazu)
- gan naizelaik itxera atea ertsiiik zagon (Errazu)
- itxera gan naizelaik atea etsik zagon (Arraioz)
- urie asi duelaik karriken ginauden (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- goizin etorri naizelaik atari itxiik zioken (Arraras)
- eurie ari duelaik kanpoan giñen (Garzaron)

A.1.2. -ELA / -ELARIK

Iraganean aldirerekotasuna adieraztean bai -ELA bai -ELARIK erabiltzen dira ondoko banaketa agertzen dela (Ikus bedi 4. mapa):

1. -ELA

Burundako barietatea:

- basuen gaitzala agertu zan (Urdiain)

- eldu zaala ikus dezut (Urdiain)
- basuen giñabiltzela agertu uen (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- basuen gailtzela agertu zen (Etxarri)

Intzako barietatea:

- mendin giñela azaldu zen (Leitza)
- eldu ziñela ikusi zaittut (Leitza)
- eldu zaala ikusi dizot (Huizi)

Uharteko barietatea:

- itxeti atratzen ari zela zakurrek ozka in dio (Uharte)
- mendiyen giñailtzela aparezittu uen (Lakuntza)
- eldu intzela ikusi yaut (Lakuntza)
- mendi tzaillela agertu zen (Oderitz)
- mendin giñailtzela sortu zen (Arruitz)

Berako barietatea:

- mendin gabiltzela agertu zen (Ituren)
- mendien gabiltzela aurkittu giñun (Labaien)
- mendin giñabiltzela azaldu zen (Saldias)

Lizasoko barietatea:

- kanpoan giñaudela azaldu zen (Etxaleku)
- mendin giñabiltzela azaldu zen (Beruete)
- oyanean giñabiltzela ikusi du (Garzaron)

2. -ELARIK

Berako barietatea:

- mendien gabiltzalik agertu zen (Lesaka)
- mendian nitzelik agertu zen (Bera)
- mendeyan zabillekik agertu zen (Etxalar)
- mendien nagolik agertu zen (Sunbila)

Elizondoko barietatea:

- mendien giñailtzelaik agertu de (Errazu)
- mendien giñabiltzelaik agertu zen (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- eldu zarelaik kusi zaitut (Arizu)
- mendien giñaudelaik agertu de (Auza)

A.1.3. EZ JOKATUAK

Aldiberekotasuna adierazteko esaldi ereduetan ondoko aldakiok agertu zaizkigu (Ikus bedi 5. mapa):

- TZEAN
- TZERAKOAN
- TZEKOAN
- TZEKIN
- ERAN

1. -TZEAN

Burundako barietatea:

- atatzien itxi ataya (Urdiain)

Etxarriko barietatea:

- etxetik ateatzien txakurrek eiñ doo ozka (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- ateatzin iitxi zazo atarii (Arruitz)

Berako barietatea:

- ateitzian atia itxi (Lesaka)
- etortzian ikusi zaitut (Lesaka)
- ateritzian itxi atia (Bera)
- sua piztutzian erre zen (Bera)
- itxetik ateritzian zakurrak autxiki in dio (Bera)
- ateitzian itxizu atia (Etxalar)
- etortzian ikusi zaitut (Etxalar)
- sua biztutzian erre naiz (Etxalar)
- itxetik ateitzian zakurrak autxiki in dio (Etxalar)
- ateitzin itxizu atia (Ituren)
- su biztutzin erre naiz (Ituren)
- itxetik ateitzin zakurrak in dio ozka (Ituren)
- ateitzin ixtut atia (Legasa)
- zuek akabatzin yoanen gara itxera (Legasa)
- itxetik ateitzin txakurrek autxiki in dio (Legasa)
- ateatzen itxitzen dot atea (Labaien)
- etortzen ikusi dizot (Labaien)
- itxetik ateatzen zakurrak kozka in dio (Labaien)

- kanpoa ateatzean atea itxi zazo (Ezkurra)
- etortzean ikusi zaittot (Ezkurra)
- atea giltzatzean giltze autsi da (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- atratzean ertsazu atea (Errazu)
- itxetik atratzean zakurrek autxiki in dio (Errazu)
- atratzean etsi atia (Arraioz)
- itxetik atratzean zakurrek atxeki in dio (Arraioz)
- tortzean kusi zaitut (Arraioz)
- sue piztean erre naiz (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- itxetik ateatzian zakurrek ozka in dio (Etxaleku)
- ateatzian ertsi zazu atarie (Etxaleku)
- etortzean ikusi dut (Garzaron)
- atratzean ertsi atarie (Auza)
- tortzean kusi dizut (Auza)
- sue biztutzean erre naiz (Arizu)

2. -TZERAKOAN

Etxarriko barietatea:

- ateatzeaakuen itxi ataiye (Etxarri)
- etorzeaakuen ikusi duuzut (Etxarri)

Berako barietatea:

- onaterakuan ikusi zattut (Bera)
- ateitzeakuan itxizu atia (Sunbila)
- sua biztutzeakuan erre da (Sunbila)

Elizondoko barietatea:

- tortzerakoan kusi datzut (Errazu)
- sue pizterakoan erre naiz (Errazu)

Lizasoko barietatea:

- sue izikitzeakoan erre in naiz (Etxaleku)
- ateatzerakuan ertsi zazu ataiye (Arizu)
- itxeti ateatzerakuan zakurrek oska in dio (Arizu)

3. -TZEKOAN

Burundako barietatea:

- atatzekuen itxi ataya (Urdiain)
- sua iaztekuen erre in da (Urdiain)
- ataatzekuen ataiye itxi zak (Lizarraga)

Intzako barietatea:

- ateatzekoan atea ixteet (Leitza)
- biztekoan erre ein naiz (Leitza)
- ateatzekoan atea itxi (Huizi)

Uharteko barietatea:

- ateatzekoan ixtazo atarii (Oderitz)
- etortzekoan ikusi zaittut (Oderitz)

4. -TZEKIN

Berako barietatea:

- ateratzekin atia itxi (Saldias)
- etortzekin eonen naiz arekin (Saldias)
- akitzekin yoanen gara itxera (Saldias)
- akabatzekin yoain gara itxera (Legasa)
- erostekin erakutsiko nauzu (Legasa)
- atta etortzikin gu lanin gaude (Legasa)

Elizondoko barietatea:

- akabatzekin gain gera itxera (Errazu)

5. -ERAN

Burundako barietatea:

- ataeran itxi ataya (Urdiain))
- etxeti ataeran txakurrak kozka ein dea (Urdiain)

Etxarriko barietatea:

- etorreran ikus duuzut (Etxarri)

Intzako barietatea:

- etxetik ataeran txakurrek ozka in dio (Huizi)

Uharteko barietatea:

- etorreran ikusi dizot (Arruitz)
- ataeran itxi ataiya (Arbizu)
- etxeti ataeran zakurrek ozka in ziok (Lakuntza)
- ataeran itxi ataiye (Lakuntza)

A.1.4. BITARTEAN

JOKATUAK

Hona hemen alor honetan agertu izan zaizkigun aldakiak (Ikus bedi 6. mapa):

- N BITARTEAN
- N BITARTE
- N BITARTIO
- N BITARTINGO
- N BINAARIN
- N BIZKITARTIAN
- N DENBORAN

1. -N BITARTEAN

Burundako barietatea:

- zek despeitzen dezein bitartien banua etxea (Urdiain)
- oi iten dezun bitartien nik inko dot bazkaya (Urdiain)

Etxarriko barietatea:

- zuek akaatzen dezubien bittartien ni etxea fanko neiz (Etxarri)

Intzako barietatea:

- zuk au bukatzen zuen bittarten etxea yoanen gaa (Leitza)
- ori itten ai zaten bittarten bazkari prestatuko dot (Leitza)
- eldu den bittarten emen eonen gaa (Leitza)

Uharteko barietatea:

- oi itten duken bittartien bazkaiye prestatuko diet (Lakuntza)

Berako barietatea:

- zuek itten duzuen bittartian nik prestatuko dut bazkaria (Sunbila)
- ori itten duzun bittartin nik bazkaria prestatuko dut (Legasa)

Lizasoko barietatea:

- akaatzen duzun bittartian ni joain naiz itxera (Etxaleku)
- ori itten ai zaan bittartian nik bazkaria prestatuko dut (Etxaleku)
- ori itten duzun bittartean prestatikot bazkarie (Auza)

2. -N BITARTE

Berako barietatea:

- zuek akautzen duzuen bittarte gu yoanen gara itxera (Lesaka)
- zuek ori itten duzuen bittarte guk bazkaria prestatuko duu (Lesaka)

- etortzen diren bittarte emen egoin gara (Sunbila)

3. *-N BITARTIO*

Berako barietatea:

- zuek ori itten duzuen bittartio nik iñen dut bazkaria (Bera)
- etortzen diren bittartio emen egonen gara (Bera)

4. *-N BITARTINGO*

Berako barietatea:

- au akabatzen zuen bittartingo banuye itxe orretara (Arantza)

5. *-N BINAARRIN*

Uharteko barietatea:

- itten duzun binaarrin jana prestatuko ot (Arruitz)

6. *-N BIZKITARTIAN*

Berako barietatea:

- zuek ori iten duzuen bizkitartian itxera yoanen naiz (Etxalar)
- ori iten duzuen bizkitartian yana prestatuko dut (Etxalar)

Elizondoko barietatea:

- zuek akitzen duzen biztartian gain naiz itxera (Errazu)
- ori iten dizun biztartian prestatiko ut bazkarie (Errazu)

7. *-N DENBORAN*

Uharteko barietatea:

- zuk akatzen duzin denboan etxea joain naiz (Arruitz)

EZ JOKATUAK

Hona hemen alor honetan agertu izan zaizkigun aldakiak (Ikus bedi 7. mapa):

- BITARTEAN
- BITARTE
- BITARTIO
- BITARTINGO
- BIZKITARTIAN
- ARTIO
- TEKOR DENBORAN

1. BITARTEAN

Burundako barietatea:

- aik etor bitartien emen iyonko ga (Urdiain)
- zek akabatu bittartien ni etxera fanko nok (Lizarraga)
- ik ori in bittartien nik bazkaye prepaatuko diet (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- zuek akaatu bittartien ni etxea fanko neiz (Etxarri)
- zuek oi ein bittartien nik prestatuko et bazkaiye (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- oi despeittu bittartien joan nok itxea (Lakuntza)
- etorri bittartien emen eongo nok (Lakuntza)
- espeatuko diet ik despeittu bittartien (Lakuntza)

Lizasoko barietatea:

- etorri bittartian emen yoin ga (Etxaleku)
- zuek akabatu bittartean banoaye itxeraño (Auza)

2. BITARTE

Uharteko barietatea:

- zuk akaatu bittarte ni banoa itxea (Oderitz)

Berako barietatea:

- etorri bittarte emen egonen gara (Lesaka)
- zuk bukatu bittarte itxea yoan da (Ezkurra)
- zuk ori ein bittarte bazkari prestatuko do (Ezkurra)

Lizasoko barietatea:

- zuek akaatu bittarte yoanen gaittuk itxea (Arraras)

3. BITARTIO

Uharteko barietatea:

- ori in bittartio nik bazkarie prestatuko ut (Uharte)

Berako barietatea:

- zuek ori in bittartio yoain naiz itxera (Bera)
- ori ein bittartio iñen dugu lana (Ituren)
- etorri bittartio emen egoin gara (Ituren)

Lizasoko barietatea:

- ori iñ bittartio bazkarie prestatu (Muskiz)
- torri bittartio emen egoin gara (Muski)

4. *BITARTINGO*

Berako barietatea:

- ori akabautu bittartingo bazkari in bear dut (Arantzza)
- etorri bittartingo emen egonen gara (Arantzza)

5. *BIZKITARTIAN*

Elizondoko barietatea:

- zuek akabatu biztartian gain naiz itxera (Arraioz)
- zuek ori in biztartian nik prestatiko ut bazkarie (Arraioz)

6. *ARTIO*

Berako barietatea:

- zuk akittu arteo yoanen gara itxera (Labaien)
- zuk ori ein arteo prestatuko dot bazkaria (Labaien)

Lizasoko barietatea:

- zuek akabatu artio yoain naiz itxera (Arizu)

7. *-TEKO DENBORAN*

Uharteko barietatea:

- zuk oi itteko denboan nik prestatuko ot bazkarii (Oderitz)

Berako barietatea:

- zuk ori akitzeko denboan yoanen gara itxera (Saldias)
- zuk ori itteko denboan nik bazkarie prestatukot (Saldias)

Bai jokatueta bai ez jokatueta agertu izan zaizkigun aldakiak batuz gero honako taula hau dukegu (Ikus bedi 8. mapa):

- -N / O BITARTEAN
- -N / O BITARTE
- -N / O BITARTIO
- -N / O BITARTINGO
- -N BINAARRIN
- -N / O BIZKITARTIAN

- O ARTIO
- -N / -TEKO DENBORAN

1. -N / O BIRTARTEAN

Burundako barietatea: Urdiain, Lizarraga
Etxarriko barietatea: Etxarri
Uharteko barietatea: Arbizu, Lakuntza
Intzako barietatea: Leitza
Berako barietatea: Sunbila, Legasa
Lizasoko barietatea: Etxaleku, Auza

2. -N / O BITARTE

Uharteko barietatea: Oderitz
Berako barietatea: Lesaka, Sunbila, Ezkurra
Lizasoko barietatea: Arraras

3. -N / O BITARTIO

Uharteko barietatea: Uharte
Berako barietatea: Bera, Ituren
Lizasoko barietatea: Muskiz

4. -N / O BITARTINGO

Berako barietatea: Arantza

5. -N BINAARRIN

Uharteko barietatea: Arruitz

6. -N / O BIZKITARTIAN

Berako barietatea: Etxalar
Elizondoko barietatea: Errazu, Arraioz

7. O ARTIO

Berako barietatea: Labaien
Lizasoko barietatea: Arizu

8. *-N / -TEKO DENBORAN*

Uharteko barietatea: Oderitz, Arruitz

Berako barietatea: Saldias

A.1.5. *GUZIETAN*

JOKATUAK

Aldiberekotasuna ez ezik maiztasuna ere adierazteko erabiltzen den egitura honen aldakiak honako hauek ditugu (Ikus bedi 9. mapa):

- N *GUZIETAN*
- N *GUZIAN*
- N *BAKOTXEAN*
- N *ALDIERO*
- N *ALDIKO*
- N *BETIYO*

1. *-N GUZIETAN*

Berako barietatea:

- etortzen den guzitan gelditzen da afaltzen (Lesaka)
- etortzen den guzitan zerbait ekartzen du (Lesaka)
- etortzen den guzitan zerbait ekartzen du (Bera)
- etortzen den guzitan gelditzen da afaltzen (Labaien)

Elizondoko barietatea:

- tortzen den guzietan kartzen du zerbaitere (Arraioz)

2. *-N GUZIAN*

Uharteko barietatea:

- etortzen den guzin zerbait ekartzen do (Arruitz)

Lizasoko barietatea:

- etortzen den guzin zerbaitte ekartzen du (Etxaleku)
- orrek eldu den guzien zerbait ekartzen du (Beruete)
- itxea eldu den guzien gelditzen da gurekin (Beruete)

3. *-N BAKOTXEAN*

Uharteko barietatea:

- etortzen den bakotxin afaltzen gelditzen da (Arruitz)

Lizasoko barietatea:

- etortzen den bakotxan afaltzen gelditzen da (Etxaleku)
- tortzen den bakotxean gelditzen da afaltzen (Auza)

4. -N ALDIERO

Burundako barietatea:

- etortzen da aldiyo afaitan gelditzen da (Urdiain)
- etortzen dan aldiyo zerbait ekartzen dau (Urdiain)
- etortzen dan aldiero afaiyan gelditzen dok (Lizarraga)
- etortzen dan aldiero zerbaitt ekartzen dik (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- etortzen dan aldiero gelditzen da afaltzen (Etxarri)
- etortzen dan aldiero ekartzen dau zerbaitt (Etxarri)

Intzako barietatea:

- etortzen den aldiero apaltzen gelditzen da (Leitza)
- etortzen den aldiero zerbaitt ekartzen do (Leitza)

Uharteko barietatea:

- etortzen den aldiero afaltzen gelditzen da (Oderitz)
- etortzen den aldiero ekartzen do zerbaitt (Oderitz)
- etortzen den aldiero afaittea gelditzen da (Uharte)

Berako barietatea:

- etortzen den aldiro afaltzen gelditzen da (Bera)
- etortzen den aldiro afaltzen gelditzen da (Etxalar)
- etortzen den aldiro zerbait ekartzen du (Etxalar)
- etortzen den aldiro gelditzen da afaltzen (Sunbila)
- etortzen dan aldiero afaltzen gelditzen da (Ezkurra)
- etortzen dan aldiero beti zerbaitt ekartzen do (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- tortzen den aldiero afaltzen gelditzen da (Errazu)
- tortzen den aldiero kartzen du zerbait ere (Errazu)
- tortzen den aldiro gelditzen da afaltzen (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- etortzen den aldero afaltzen gelditzen dok (Arraras)
- itz itten dun aldero esaten dik ergelkerien bat (Arraras)
- tortzen den aldiero gelditzen da afaltzen (Muskiz)

- tortzen den aldiero kartzen du zerbait (Auza)

Bada, bestalde, aldaki honen era ez jokatua ere, hots, O ALDIERO, Berako barietatean agertu izan zaiguna, adibidez:

- etorri aldiro gelditzen da afaltzen (Ituren)
- etorri aldiro afaltzen gelditzen da (Legasa)
- etorri aldiro ekartzen du zerbait (Legasa)

5. -N ALDIKO

Uharteko barietatea:

- etortzen den aldiko afaltzen gelditzen duk (Lakuntza)

6. -N BETIYO

Uharteko barietatea:

- etortzen den betiyo gelditzen da afaltzen (Arbizu)

A.2. BATA BESTEA BAINO LEHEN

Atal honetako esaldi eredu guziak ez jokatuak dira, hona hemen agertu izan zaizkigun aldakiak (Ikus bedi 10. mapa):

BAINO LEHEN
 BAINO LEHENAGO
 AINTZINEAN
 AURREAN
 ORDUKO
 -TERAKO
 BEIYOON / BAÑON

1. BAINO LEHEN

Burundako barietatea:

- bazkaldu baino len garbitazu eskuek (Urdiain)

Etxarriko barietatea:

- bazkaldu baño len garbitzazu eskubek (Etxarri)

Intzako barietatea:

- biztu baño len itxi leyoa (Leitza)
- yaten asi baño len eskuek garbittu (Leitza)
- atea itxi oztu baño len (Huizi)

Uharteko barietatea:

- iazi baño len layoa itxiko diet (Lakuntza)
- bazkaldu baño len eskubek garbitzak (Lakuntza)
- gu etorri baño len joan in ittuben (Lakuntza)

Berako barietatea:

- bazkaldu biño len garbittu eskuak (Sunbila)
- sua iñ biño len itxi leyua (Legasa)
- yan biño len eskuak garbittu (Legasa)
- biztu biño len leyo itxi zazo (Labaien)
- bazkaldu biño len eskuk garbitto (Labaien)
- argi bizto baño len leyoa itxi dot (Ezkurra)
- bazkaldu baño len eskuk gharbittu itzazo (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- sue piztu baño len etzazu leyoa (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- sue piztu baño len istak bentana (Arizu)
- biztu bae len itxi leyoa (Beruete)
- yan bae len garbitu eskuk (Beruete)

2. *BAINO LEHENAGO*

Burundako barietatea:

- izi baño lenao ataiye itxi zak (Lizarraga)

Intzako barietatea:

- atea itxi oztu baño len (Huizi)

Berako barietatea:

- sua biztu biño lenago itxitzen dut leyua (Lesaka)
- sua biztu biño lenao itxi zu leyua (Etxalar)
- su biztu biño lenago itxizu leyoa (Ituren)
- bazkaldu biño lenago garbittu eskuek (Ituren)

Lizasoko barietatea:

- yan baño lenao garbittu eskuk (Arraras)
- iziki baño lenao ertsi zazu leyoa (Etxaleku)
- yan baiño lenago eskuek garbi tzazu (Muskiz)
- biztu baño lenago ertsi leyoa (Auza)
- bazkaldu baño lenago garbitu eskuek (Auza)

3. *AINTZINEAN*

Berako barietatea:

- bazkaldu aintzinin eskuak garbittu (Lesaka)
- bazkaldu aintzinian garbitu eskuak (Etxalar)

Elizondoko barietatea:

- piztu aitzinian ertsazu leyoa (Errazu))

- aurre, garbi tzazu eskuek bazkaldu aitzinian (Errazu)
- bazkal aintzinean garbitzezu eskuek (Arraioz)

4. *AURREAN*

Lizasoko barietatea:

- jan aurrian garbi tzezu eskuk (Etxaleku)

5. *ORDUKO*

Burundako barietatea:

- argiya iazi orduko layue isten dot (Urdiain)

6. *-TERAKO*

Burundako barietatea:

- bazkaltzen asteako eskuek garbitak (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- izeratzeako itxi zazu leyue (Etxarri)

Uharteko barietatea:

- ixetutzeako leyoa itxi ot (Oderitz)
- bazkaltzeako garbittu eskuk (Oderitz)
- su izikitzeako iitxi leyoa (Arruiz)
- jaten asteako eskuk garbittu itzezo (Arruiz)

Lizasoko barietatea:

- biztutzeako itxi leyoa (Garzaron)

7. *BEIYOON / BAÑON*

Uharteko barietatea:

- jan beiyoon eskuek garbitu (Uharte)
- argiya izi bañon itxi leyoa (Arbizu)

A.3. BATA BESTEAREN OSTEAN

A.3.1. JOKATUAK

Gehienetan aldaki ez jokatuak erabiltzen diren arren, noizean behin era jokatuak ere agertu izan zaizkigu; hona hemen jaso ditugun aldakiak (Ikus bedi 11. mapa):

- NAKO
- NETIK
- N ORDUKO
- N BEZIN AGUDO

1. *-NAKO*

Uharteko barietatea:

- txakurrek jaunka itten du otsa aitzen duuneako (Arbizu)

Berako barietatea:

- alleatu zenako yoan zen goatzera (Ituren)

2. *-NETIK*

Burundako barietatea:

- alleatu daneti fan da aoea (Urdiain)
- gaizkitu zaneti belaa il tzan (Urdiain)
- txakurrak iten dau jaunka ots bat aitzen deneti (Urdiain)

3. *-N ORDUKO*

Uharteko barietatea:

- zakurrek zaunka itten do soñu aitzen dun orduko (Arruitz)
- akaatu dun orduko autsi in da (Arruitz)
- zakurrek jaunka itten dik ots bat aitzen duen orduko (Lakuntza)

4. *-N BEZIN AGUDO*

Berako barietatea:

- akittu dun bezin agudo autsi da (Sunbila)

A.3.2. EZ JOKATUAK

Alor honetan aldaki asko agertu izan zaigu, hona hemen (Ikus bedi 12. mapa):

- ETA
- (ETA) ONDOAN
- (ETA) ONDOTIK
- ETA SEGIDUAN
- ETA GE(R)O
- ETA AGUDO
- ETA FITE
- ETA LAISTER
- ETA BEREHALA
- ORDURAKO
- ORDUKO
- BEZIN LASTER
- BEZIN AGUDO
- TAKOAN

- TEKIN
- UTSEKIN

1. ETA

Burundako barietatea:

- diruba artuta fan zan (Urdiain)
- dirube artute fan in dok (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- dirube artuta fan zan (Etxarri)

Intzako barietatea:

- dirue artute yoan in tzen (Leitza)

Uharteko barietatea:

- diru artuta joan da (Oderitz)
- bazkaldu ta joain gaa itxea (Oderitz)
- dirube artute joan iñ uen (Lakuntza)

Berako barietatea:

- dirua artuta yoan zen (Bera, Legasa, Etxalar)
- dirua artuta yoan da (Labaian)
- diru artuta yoan zen (Ezkurra)
- etxetik ateata txakurrek ozka in dio (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- sosa artute gan zen (Errazu)
- bazkaldute gain gara itxera (Arraioz)
- dirue artute gan tzen (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- dirue artute yoan zen (Arizu)
- afaldu ta kanpoa ata giñuken (Arraras)
- dirue artute yoan in zen (Etxaleku)
- dirue artute yoan da (Beruete)
- bazkaldu ta yoain gara itxea (Beruete)
- lan in ta bazkalduko duu (Beruete)
- bazkaldu ta yoain gara itxera (Muskiz)
- dirue artute yoan tzen (Auza)
- itxetik atrata zakurrek ozka in dio (Auza)

2. (ETA) ONDOAN

Burundako barietatea:

- bazkal onduen fanko ga etxea (Urdiain)

Etxarriko barietatea:

- bazkal onduen fanko ga etxea (Etxarri)
- lana akai in onduen bazkalduko deau (Etxarri)

Intzako barietatea:

- bazkal ondoan joango gaa etxea (Huizi)

Uharteko barietatea:

- bazkal ondoan joan gaa etxea (Arruitz)
- bazkal onduen joan gaittuk itxea (Lakuntza)
- lana iñ onduen bazkalduko diau (Lakuntza)

Berako barietatea:

- bazkal ondun yoanen gara itxera (Lesaka)
- bazkal onduan yoanen gara itxera (Bera)
- afal onduan kanpora yoan giñen (Bera)
- lan in ta onduan yanen dugu (Etxalar)
- bazkal ondun eiñen dugu lana (Ituren)
- bazkal ondun yoanen gara itxera (Labaien)
- bazkaldu ondoan yoanen gaa itxea (Ezkurra)
- lan ein ondoan bazkalduko do (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- bazkal ondoan gain gera orrat (Errazu)
- lan in ondoan yain dugu (Errazu)
- bazkaldu ondoan gain gara itxera (Arraioz)
- lan in te ondoan yain dugu (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- bazkal ondoan joain ga itxa (Etxaleku)
- bazkal ondoan yoain gara itxera (Auza)
- lan in te ondoan bazkaldu iñen dugu (Auza)

3. (ETA) ONDOREN

Burundako barietatea:

- lan in ondoren bazkalduko dieu (Lizarraga)

Intzako barietatea:

- yan da ondoren yoanen gaa etxea (Leitza)
- lana ein de ondoren bazkalduko ou (Leitza)

Uharteko barietatea:

- lan in ondoren jain duu (Arruitz)
- jan ondorien faen gaa itxaa (Arbizu)
- lan in ondorien jaen duu (Arbizu)
- jan ondorien garbittu eskubek (Arbizu)

Berako barietatea:

- bazkalduko du lan in ondoren (Bera)
- mendien ibili ondoren yoan giñen afaltzera (Sunbila)

Lizasoko barietatea:

- lan in ta ondoren yain duu (Garzaron)

4. *(ETA) ONDOTIK*

Berako barietatea:

- bazkaldu ondotik yoanen gara itxera (Etxalar)
- lna in ondotik bazkalduko dugu (Sunbila)
- lan egin ta ondotik bazkalduko dugu (Legasa)

5. *ETA SEGIDUAN*

Burundako barietatea:

- alleatu te seittun goatzera fan uen (Lizarraga)
- gaizkittu te seittun il uen (Lizarraga)

Intzako barietatea:

- erosi tte seittun galdu dot (Leitza)
- etxea alleatu ta seittun goatzea joan in tzen (Huizi)
- akaatu ta seittun autsi in da (Huizi)

Uharteko barietatea:

- gaizki jarri tte segiduen il uen (Lakuntza)

Berako barietatea:

- eri ta segiduan il tzen (Bera)
- alletu ta segidun yoan zen goatzera (Legasa)
- alleatu ta seittun yoan zen goatzera (Labaien)
- yoan ta seittun goatzera yoan zen (Saldias)

Lizasoko barietatea:

- alleatu ta segidan yoan da goatzera (Arizu)
- alleatu te segidan goatzera yoan da (Beruete)

6. *ETA GE(R)O*

Burundako barietatea:

- lana in da geo bazkalduko du (Urdiain)

Berako barietatea:

- yan ta gero yoanen gara itxera (Saldias)
- lan in ta gero yanen duu (Saldias)

Lizasoko barietatea:

- mendien eilli ta geo yoan giñuken afaltzea (Arraras)

7. *ETA AGUDO*

Intzako barietatea:

- gaizki jarri ta agudo il in tzen (Huizi)

Uharteko barietatea:

- gaizki jarri ta agudo il tzen (Arruitz)

Berako barietatea:

- erittu ta agudo il tzen (Bera)
- eritu ta agudo il tzen (Etxalar)
- erittu ta agudo il zen (Legasa)
- gaizkittu ta agudo il zen (Labaien)

Lizasoko barietatea:

- gaizki yarri te agudo il tzen (Auza)

8. *ETA FITE*

Elizondoko barietatea:

- eritu te fite il zen (Errazu)
- eri yarri te fite il tzen (Arraioz)

9. *ETA LAISTER*

Berako barietatea:

- erittu ta laister il zen (Lesaka)

10. *ETA BEREHALA*

Burundako barietatea:

- aitu ta belaxen ezautu deat (Urdiain)
- gaizkitu ta belaa il tzan (Urdiain)

Intzako barietatea:

- gaizki yarri ta belaxe il tzen (Leitza)

Uharteko barietatea:

- gaizkittu ta beala il tzen (Arbizu)

Berako barietatea:

- gaizkittu ta belaxe il zen (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- alleatu te beala gan da goatzera (Arraioz)
- maraguriek artu te beala yaten tu A(rraioz)
- eri yarri te beala il tzen (Arrioz)

Lizasoko barietatea:

- gaizki jarri ta bela il tzen (Etxaleku)

11. ORDURAKO

Intzako barietatea:

- alleatu orduako oera yoan da (Leitza)
- aittu orduako izautu dot (Leitza)

12. ORDUKO

Burundako barietatea:

- soiñue aitu orduko ezautu dot (Lizarraga)
- txakurrek jaunka itten dik soiñu at aitu orduko (Lizarraga)

Intzako barietatea:

- atarire atera urdeko zakurrek ozka in dio (Leitza)

Uharteko barietatea:

- alleatu orduko goatzea joan zen (Oderitz)
- gaizki jarri ordeko il tzan (Oderitz)
- aittu ordeko izautu ot nor den (Oderitz)
- itxetik atea orduko txakurrek koskatu dio (Oderitz)
- alleatu orduko goatzea joan zen (Arruitz)
- alleatu orduko oatzera yoan zen (Uharte)
- aaittu orduko ezautu diet (Lakuntza)
- alleatu orduko goatzea joan uen (Lakuntza)

Berako barietatea:

- etorri orduko yoan zen goatzera (Lesaka)
- ura etorri orduko akauta izanen da (Lesaka)
- aittu orduko izautu dut (Bera)
- zakurra zaingaka asten da soñu bat susmatu orduko (Bera)
- etorri orduko yoan zen goatzera (Bera)
- aditu orduko ezautu dut (Etxalar)
- akautu orduko autsi da (Etxalar)
- zakurrak zainga iten du soñu bat aditu orduko (Etxalar)
- aittu orduko izautu dut (Ituren)
- soñu bat aittu orduko zakurrak eiten du zainga (Ituren)
- aittu orduko izautu diot (Legasa)

- zakurrak zainka itten du asotza somatu orduko (Legasa)
- itxea etorri orduko goatzera yoan zen (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- alleatu orduko gan tzen goatzera (Errazu)
- aitu orduko zautu dut (Errazu)
- zakurre asten da zaingaka sots bat aitu orduko (Errazu)
- zakurre asten da zaingeka sos bat somatu ordiko (Arraioz)
- akabatu ordiko autsi de (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- yoosi ordeko galdu in dut (Etxaleku)
- alleatu ordeko goatzea joan tzen (Etxaleku)
- aittu ordeko izautu diot (Etxaleku)
- zakurrek zaunka itten du soñu at aittu ordeko (Etxaleku)
- aittu ordeko ezautu ot (Beruete)
- alleatu orduko yoan tzen goatzera (Auza)
- aittu orduko ezautu diot (Muskiz)

13. *BEZIN LASTER*

Berako barietatea:

- adittu bizin laister ezautu zattut (Lesaka)

14. *BEZIN AGUDO*

Berako barietatea:

- etorri bezin agudo yoan zen goatzera (Bera)
- allegatu bezin agudo guatzera yoan zen (Sunbila)

15. *-TAKOAN*

Intzako barietatea:

- erositakoan erakutsiko deezo (Huizi)

Lizasoko barietatea:

- lana intakoan jain du (Etxaleku)

16. *-TEKIN*

Etxarriko barietatea:

- etortzieki goatzea fan zan (Etxarri)
- aitzieki ezautu eñ det (Etxarri)

Berako barietatea:

- yatekin yoain gara itxera (Legasa)

17. *UTSEKIN*

Berako barietatea:

- adittu utsekin izautu dot (Labaien)

B. *NOIZKO*

B.1. *JOKATUAK*

Alor honetan aldaki bi baino ez dugu aurkitu (Ikus bedi 13. mapa), gehienetan era ez jokatuak erabili izan zituzten:

- TEN -NERAKO
- TEN -NEKO

1. *-TEN -NERAKO*

Uharteko barietatea:

- akaatzen duzuneako etorriko a (Arruitz)
- oik etortzen deeneako gu lanin ai gaa (Arruitz)

Berako barietatea:

- akautzen duzunerako etorriko da (Lesaka)

Lizasoko barietatea:

- akautzen duzunerako torko da (Auza)
- akaatzen duzuneako etorriko da (Etxaleku)

2. *-TEN -NEKO*

Berako barietatea:

- akautzen duzuneko etorko da (Bera)

Lizasoko barietatea:

- akabatze uzuneko torriko da (Arizu)

B.2. *EZ JOKATUAK*

Hona hemen alor honetan jaso ditugun aldakiak (Ikus bedi 14. mapa)

- ORDUKO
- ONDOERAKO
- -TERAKO

1. *ORDUKO*

Berako barietatea:

- ek etorri orduko gu lanian gara (Etxalar)
- zu etorri orduko akittua izanen da (Sunbila)

- zu etorri orduko akauta izanen da (Bera)
- ek etorri orduko gu lanian ari gara (Ituren)
- akabatu orduko etorriko da (Legasa)
- ek etorri orduko gu lanin gara (Legasa)

Elizondoko barietatea:

- akabatu orduko torko da (Errazu)
- oik torri orduko gu lanean ari gara (Errazu)
- zuk akabatu ordiko torriko da (Arraioz)
- torri ordiko gu lanean ari gara (Arraioz)

2. ONDOERA KO

Burundako barietatea:

- zuk despeitu ondoerako etorko da (Urdiain)

3. -TERAKO

Burundako barietatea:

- ik akabatzeako etorriko ok (Lizarraga)

Etxarriko barietatea:

- zuk akaatzeako etorko a (Etxarri)

Intzako barietatea:

- bukatzeako etorriko da (Leitza)
- nik akaatzeako etorriko da (Huizi)
- aik etortzeako gu lanen gai (Huizi)

Uharteko barietatea:

- zok akaatzeako etorriko da (Oderitz)
- oi akabatzeako etorriko da (Uharte)
- oi itteako bazkaiya prestatuko ut (Arbizu)
- despeitzeako etorriko uk (Lakuntza)

Berako barietatea:

- akitzerako etorko da (Ituren)

- zuk akitzerako etorko da (Labaien)
- au bukatzeako etorriko da (Ezkurra)

Lizasoko barietatea:

- akaatzeako etorriko ttok (Arraras)
- etortzeako akaatuik yoin da (Etxaleku)
- nik akabatzeako etorriko da (Beruete)
- zuk ori itteako nik bazkarie prestatukot (Garzaron)

C. NOIZTIK

C.1. JOKATUAK

Hona hemen alor honetan agertu izan zaizkigun aldakiak (Ikus bedi 15. mapa):

- NETIK
- NEZKERO(Z)
- NEZKEROZTIK

1. -NETIK

Uharteko barietatea:

- etorri zenetik eztot ikusi (Arruitz)
- etorri zenetik eztiet ikusi (Lakuntza)

Elizondoko barietatea:

- torri denetik eztut kusi (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- torri zenetik eztut kusi (Arizu)
- tor denetik oneta eztiot kusi (Muskiz)
- torri zenetik eztut kusi (Auza)

2. -NEZKERO(Z)

Burundako barietatea:

- etor tzanezkeoz eztot ikusi (Urdiain)

Intzako barietatea:

- etorri zenezkeo eztot ikusi (Leitza, Huizi)

Berako barietatea:

- etorri denezkero eztut ikusi (Bera)

Elizondoko barietatea:

- torri zenezkero eztut kusi (Errazu)

Lizasoko barietatea:

- etorri zenezkeo eztiot ikusi (Beruete)

3. -NEZKEROZTIK

Uharteko barietatea:

- oi ekar tzun ezkeoztik ezta etorri (Arruiz)

Berako barietatea:

- etor tzen ezkeroztik eztut ikusi (Sunbila)
- ori ekar tzun ezkeroztik ezta etorri (Sunbila)

C.2. EZ JOKATUAK

Hona hemen alor honetan jaso izan ditugun aldakiak (Ikus bedi 16. mapa):

- EZKERO(Z)
- EZKEROZTIK(EN)
- EZKEROKO

1. EZKERO(Z)

Etxarriko barietatea:

- etorriezkeoz eztet ikusi (Etxarri)
- etorritzkeo eztiot ikusi (Etxarri)

Intzako barietatea:

- ue ekarri ezkeo ezta etorri (Huizi)

Uharteko barietatea:

- etorri ezkeos eztut ikusi (Arbizu)

Berako barietatea:

- etorritzkeoz eztut ikusi (Etxalar)
- etorri ezkeroz eztut ikusi (Arantza)
- etorri ezkeroz eztut ikusi (Ituren)
- ori ekarri ezkeroz ezta etorri (Ituren)
- etorritzkeoz eztot ikusi (Ezkurra)
- ori ekarrizkeo ezta etorri (Ezkurra)

Elizondoko barietatea:

- ori karrizkeroz ezta torri (Errazu)

Lizasoko barietatea:

- etorri eskeos eztiot ikusi (Etxaleku)
- torri ezkeoz eztut ikusi (Garzaron)

2. EZKEROZTIK(EN)

Uharteko barietatea:

- etorri ezkeoztik eztot ikusi (Oderitz)
- oi ekarri ezkeoztik etzen etorri (Oderitz)

Berako barietatea:

- etorri ezkeroztik eztut ikusi (Lesaka)
- ori ekarri ezkeroztik ezta etorri (Bera)
- ori ekarrizkeroztik ezta etorri (Etxalar)
- ori ekarri ezkeotik eztut ikusi (Arantza)
- etorritz geroztiken eztut ikusi (Legasa)
- ori ekarriz geroztiken ezta etorri (Legasa)

Elizondoko barietatea:

- ori karri ezkoztik ezta torri (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- etorri ezkeoztek eztit ikusi (Arraras)
- oi ekarri ezkeoztek eztok izandu (Arraras)

3. EZKEROKO

Berako barietatea:

- etorri ezkeroko eztot ikusi (Labaien)

D. NOIZ ARTE

Alor honetan jaso izan ditugun esaldi gehienak ez jokatuak izan dira; hala ere, jokatu gisa behin agertu zitzaigun:

- etortzen deeneaño emen egoen gaa (Arruitz)

Gariteko esaldi guztiak jokatuak izan dira; hona hemen jaso izan ditugun aldakiak (Ikus bedi 17. mapa):

- ARTE
- ARTEAN
- ARTIO / ARTIÑO

1. ARTE

Intzako barietatea:

- espeatuko dizot bukatu arte (Leitza)
- espeatuko dizugu akaatu arte (Huizi)

Uharteko barietatea:

- etorri arte ementxe yoin gaa (Oderitz)
- espeatuko dizu zok akaatu arte (Oderitz)
- espeatuko dizot akaatu arte (Arruitz)

Berako barietatea:

- espetuko duu zuk akautu arte (Lesaka)
- akautu arte espeatuko zattut (Bera)
- etorri arte emen egonen gara (Etxalar)
- espetuko zaitugu etorri arte (Etxalar)
- etorri arte emen egoin gara (Legasa)
- espetuko dizugu akabatu arte (Legasa)
- etorri arte emen espeatoko do (Ezkurra)
- bukato arte espeatoko do (Ezkurra)

Lizasoko barietatea:

- aik etorri arte emen eonen gaittuk (Arraras)
- espeatuko diu akaatu arte (Arraras)
- espeatuko dizut akaatu arte (Etxaleku)

2. ARTEAN

Burundako barietatea:

- etorri artien emen yoonko gaittuk (Lizarraga)

Uharteko barietatea:

- etorri artien emen eonen naiz (Arbizu)

3. ARTIO / ARTIÑO

Etxarriko barietatea:

- espeatuko det akaatu artio (Etxarri)

Intzako barietatea:

- etorri artiño emen egon bearko duu (Huizi)

Berako barietatea:

- esperatuko dugu ura etorri artio (Ituren)
- etorri arteo eonen gara emen (Labaien)

Elizondoko barietatea:

- torri artio emen egoin gara (Errazu)
- esperatiko datzue akitu artio (Errazu)
- ek torri artio emen egoin gara (Arraioz)
- esperatiko datzugu akabatu artio (Arraioz)

Lizasoko barietatea:

- torri artio emen egoin gara (Arizu)
- etorri artio emen egoin naiz (Beruete)
- espeatiko dizugu akabatu artio (Auza)

Jaso izan ditugun esaldi eredu guzien laburpen gisa hona hemen aldakien taula:

JOKATUAK	EZ JOKATUAK	
GEROA: -TEN -NEAN -TEN -ELARIK	-TZEAN -TZERAKOAN -TZEKOAN -TZEKIN -ERAN	
LEHENA: -O -NEAN -O -ELARIK		
-ELA -ELARIK		
-N BITARTEAN -N BITARTE -N BITARTIO -N BITARTINGO -N BINAARRIN -N BIZKITARTIAN -N DENBORAN	-O BITARTEAN -O BITARTE -O BITARTIO -O BITARTINGO -O ARTIO -O BIZKITARTIAN -TEKO DENBORAN	
-N GUZIETAN -N GUZIN -N BAKOTXEAN -N ALDIERO -N ALDIKO -N BETIYO	-O ALDIRO	
	BAÑO LEN BAÑO LENAGO AINTZINEAN AURREAN	ORDUKO -TERAKO BEIYOON BAÑON
-NAKO -NETI -N ORDUKO -N BEZIN AGUDO	ETA (ETA) ONDOAN (ETA) ONDOTIK (ETA) ONDOREN ETA SEGIDUAN ETA GE(R)O ETA AGUDO ETA FITE	ETA BEREHALA ORDURAKO ORDUKO BEZIN LASTER BEZIN AGUDO -TAKOAN -TEKIN UTSEKIN
-NERAKO -NEKO	ORDUKO ONDOERAKO -TERAKO	
-NETIK -NEZKERO(Z) -NEZKEROZTIK	EZKERO(Z) EZKEROZTIK(EN) EZKEROKO	
-NEAÑO	ARTE ARTEAN ARTIO / ARTIÑO	

LABURPENA

Artikulu honetan Nafarroako ipar goi nafarreraren eta gipuzkeraren eremuan, 1989. urteko udan, zenbait herritan jasotako denborazko perpausen azterketarako esaldi eredu batzu plazaratzen dira.

Helburua materiala ezaguteraztea da, aipatutako perpausak gauzatze-ko jasotako era desberdinak aurkeztuz, geroagoko azterketa zehatza-goetarako zenbait arazo agerian jartzen direla.

RESUMEN

En este artículo se presentan una serie de frases modelo para el estudio de las oraciones temporales, recogidas en el verano de 1989 en algunos pueblos pertenecientes a los dialectos alto navarro septentrional y guipuzcoano de Navarra.

El objetivo es dar a conocer el material, presentando las diferentes formas de realización de las mencionadas oraciones, quedando pendientes diferentes problemas para posteriores análisis más pormenorizados.

RESUME

On présente dans cet article une série de phrases modèle pour l'étude des subordonnées temporelles, recueillies au cours de l'été 1989 dans différents villages appartenant au dialecte haut-navarrais septentrional et à celui de la Navarre proche de la région de Guipuzcoa.

L'objectif est de faire connaître ce matériel, en présentant les diverses formes de réalisation des subordonnées citées, différents problèmes restant à résoudre pour des analyses postérieures plus détaillées.

SUMMARY

This article presents a series of pattern sentences for the study of time clauses. They were collected in villages from Navarre and Guipuzcoa belonging to the North High Navarraise dialect and Navarraise Guipuzcoan.

The aim of this work is to make the material public without exhaustive analysis.









